

## **Eguzkia, Irargia eta Mundua**

Aldi baten, noizik hona ez dakigula, Eguzkia eta Irargia andra-gizonak ei ziran, eta Irargi barriko gaulehendian, Eguzkia sartzamendira noz helduko dagoala, badinotso Eguzkiak harrokeriaz beterik:

—Ikusten dona Mundua egunean baino egunean ederrago!

—Bai, ikusiko ez joat ba!

—Ba, hori edertasunori neure argi eta beroari esker dona, gero!

—Bai, eta neure gauetako inontzari! Ala inontzak ez jok balio ezetarako?

Hori entzun baeutsan ba ze, hasarratuten jako Eguzkia, hartzen dau esku biak bete txingar gori bere barrutik eta plast! Arpegi-arpegira bota eutsazan txingarrok Irargiari eta erreunez bete bekokitik okotzerainoko guztia. Hontxe eta hontxe be ezagun dauz hareek erreuneak. Aitutea baino ez dago Irargiari betea danean.

Baina, Eguzkia hain ikusten eban berde, bildursartu eginda egoan Irargia eta karran hasi jakon, zein Eguzkiak beharreztanen bat egin. Eguzkia orduan atzerik hara gainetu jakon mirua harrari letxe eta odolak ur egiteko gitxiren faltan.

Joan eta joan bata-bestearen atzean, ilgora, Irargi bete, eta ilbehera guztian eragoion Eguzkiak Irargia kuxetan. Irargiaren arnasestua eta magalotsa inoz ikusi bakoak ziran, eta bere burua holan ikusirik, badino berekitan:

—Gesu baten gainetu behar jatak Eguzki arminori, baina ez jok berea egingo lehenengoan!

Eguzkia orpoetan ar barik joakon atzerik hara, eta hogeta zortzigarren egunean, ia-ia kuxau eginik eukala, ez deutso Irargiak bere burua gordeten! Eguzkiak orduan, zuzian, aurreak hartu eutsazan, eta egunak joan egunak etorri, Irargia atzerik hara ikusten eban, eta badino bere artean:

—Burua non gorde jeustan, baina, horrek andreorrek?

Eguzkiak atzera egin ezin eban lez, arin eragoion eragon be Irargia barriri atzerik hara kuxetako, eta horretarako denodu guztiagaz eta inizitua baino arinago ibilita be, beste hogeta zortzi egun behar izan ebazan. Baina Irargiak ostera be bere burua gorde batek badaki non!

Gaur be hondino hor jabilkuz Eguzki-Irargiok bata-bestearen atzean, egunez beroa eta gauez inontza dariola.

Juan Manuel Etxebarria – Euskal Filologian Doktorea